

Galileo Galilei (1564-1642)

Aita ONAINDIA'k


Lau gizaldi joanak dirala jaio za-
retik, Galileo oraindik bere ezta-
baida askoren ardatza dozu. Adis-
kideen eta aurkakoen artean, areik-
goratuz eta oneik beeratuz, gaur be-
ez da tinta gitxi erretzen; alde bate-
tik bestera erabilliaz, eta astiñaldi
ederrak emon asarre ta maitasun
lariñotzen noiznai zabal ta zutik jar-
ten dan ikurriña da.

Bere garaiko gizona

Baiña, bear bada, Galileo'k be-
rak nai izan eban zoriaren aurpegi
ori. Berberak jalgi-azo zituan bere
egunetakoan artean, bere eritxiak
zirala-ta, ainbat eta ainbat adieraz-
pen diferenteak, bera ilda gero be-
jarraitu ebenak. Aren bitarakoa,
zalantza ta ala-olakoa, egia esan,
garai aretako gatxa dogu: krisis go-
gorrekoak izan ziran aren egunal-
diak, gora edo beera egiteko ur-
teak eta egunak. Galileo, barriz, ez
zan egundo be giro naspiltsu orren
aurka jagi, berton sart, egokitu ta
bizi baiño.

Egokitze onek naigabe asko eka-
rri eutsozan, pozaldiak eta nega-
rrak, olakoetan eta olako gizona-
kaz jazo oi danez. Bere ete zan
errua? Galileo matematiku bat
zen, ez igarle bat; ikerle bat, ez
iraultzaillea. Zer askotan gaurko
zientzilaria dakarsku gogora.

Pisa'n jaio zan Galileo 1564'ko
otsaillaren 15'an. Gizaldi erdiko
gerrate ostean Italia orduantxe jagi
zan, edo sartu zan, aul eta banatua,
beeratze arorik illunean. Urte bete
zan Trento'ko Eleiz-Batzar nagu-
sia amaitu zala, Eleiza Katolikuari
sendotasuna ta aginpidea ezarri
eutsona ain zuzen. Aldi berean tin-
koturik geratzen zan erregeen
aginpide osoa Italiako estaduetan.
Dardaraz jarri zan Inperio zabala-
ren mitua; erlejiñozko gerrak sun-
tsituta itxi eben Europa. Erdi-Aro-
ko etxe nagusia lurrera zan. Baiña,
egin-egiñean be, etxe orren zimen-
tarri gain Eleiza Katolikuak bere
ospe ona ta bere indarra ospera be
ipiñi nai zituan. Naitaezko zan, be-



Portrait of a man with a beard.

... Aita Santuaren politika ba-
... krisi gogorra sortzea, Piz-
... bizi ta kemena ezarri
... intelektualen artean.

Galileo'ren adimena, sumendi bat

Vinzenzo Galilei, Galileo'ren
... andik ona —Pisa, Florenzia,
... Bolonia ta abar— irakasle ta musi-
... kalari dozu. Eta seme-alaba zin-
... gurasoen jarraille izan oi-
... Oraingoan bai beñik-bein.
... kasle ona, bizkor joian aren izena
... Italia'n zear ibillita,
... Pisa'ra eldu zan 1581'an. Izakeraz
... atsegin samarra. Gorputzez
... ta lodí, begi bizi, mingain zoli,
... akademi-mundukoekin burrukara-
... gertu: maisuak alperreko itz-
... eriegi erioenak ziran, susterbako
... oiñarri aulean jarriak ziran euren
... etxi ta irakatsiak. Galileo'ri go-
... gaikarri jakon jokabide au.

Pisa'ko jakitun eta irakasleen
... nazkagarria jasan eziñik,
... Florenzia'ra doa. Oindiño gazte
... dala be, sumendi bat dozu aren adi-
... mena. Zintzilikako kulunken iso-
... kronismua aurkitzen dau, gorpu-
... tzen pisu berezia eratzeko ur-ba-
... lantza aurkitzen dau, beste aurki-
... keta batzuetarako be itaunak arro-
... turik. Jakintza sailleko lan onein
... artean, baiña, beste buruauste bat
... bideratu jakon: diruz ez dabil ondo
... bere sendia. Ortarako Floren-
... zia'ko jakitunen artean bere izena
... zabaltzen asten da, bere zientzi ja-
... kitatai buruz itzaldiak emoten diar-
... du. Bertako Akademian ain zuzen
... azaltzen ditu Dante'ren «Infer-
... nuak» ditun irudi, toki ta aundita-

sunari buruzko irakatsiak; Tasso ta
Ariosto'zko eztabaida ta izka-miz-
ka ta buruketan parte artzen dau.
Arekin eta onekin ar-emonean sar-
tu naiez, laguntzaille ta babesleak
billatzen ditu. «Indartsu diranen al-
detik beti be», iñoan berak.

Familiaren pisuari erantzun bearra

«Mekena» eiztako jokoa modan
egoan aldia zan; au da, zeozer egi-
teko, liburu bat argitara emoteko,
«mekena» bat, biotz oneko ta esku
zabaleko bat bear zan. Olako billa
ibilli jakun Galileo be, bere famili
bear-izanean aurkitzen zanari la-
gundu al izateko batez be. Dirurik
ezak dakarren kezka barik bizi,
gorputz eta arima ikasteari emon-
da, onek ekartson ospe ta aintzari
ta atsegiñari oso-osoan eskeiñia.
Auxe zan Galileo'k be billatzen
euskun gaillurra, 46 urterarte lortu
ez ebana.

Sasoi orretan ara ta ona doa,
Erroma'tik Bolonia'ra, ta emendik
Florenzi'ra. Beti ikasten eta irakas-
ten. 1591'an aita ilten jako, eta zaa-
rrena bera dalako, familiak daka-
rren pisuari berak erantzun bear.
Ara ta ona, ostera be, laguntasun
billa. Venezia'n eta Padua'n arra-
kasta itzela euki dau. Urte ortako
iraillaren 26'an Padua'ra dei egiten
dautsoe, ango ikastetxe nagusian
Matematikak azaldu dagizan; ondo
ordaintzen dautse. Eta pozik,
abendua 7'an Galileo'k ango
irakastegian bere len-saioa dagi,
ikasturtea asikeran. Errez ta argi
gauzak azaltzen dabezalako, laster
irabazten ditu ikasleen biotzak;

Toskana'ko Duke Aundiaren Jakituna». Milla florineko ordaina. Zelan zuritu aldaketa au? Ona: «Ezeren diru-kezka bagarik, ikasi egin gura dau; ez, ez dau erakutsi nai bizi izateko».

Ez eban lan egin nai emagalduen antzeko mirabetzan, ikasle bako txak emon oi eutson txanpon zikutz loiz. Baiña ba-ebazan beste errazoi batzuk be Padua'ri agur esateko. Benezia aldatz-beera joian, Pablo V'garrenaren aurkako burrukan auldua; europear mariñelen norgeiagoka be gero ta latzagoa zan. Beste aldetik, Fernando I eta Kosme II agintaritzan, Toskana goi-goi jarri zan Itali'ko estaduen artean. Galileo'k gainera Erroma'tik urrago egon nai eban zientzi barria zabal-azteko baimena lortu nairik. 1611'an Erroma'ra doa, adiskideak eta laguntza billa. Gizaseme garaille guren lez artzen dabe. Urrutikusgaia berak asmatu dauala esatea joko doillorra dalarik be, tresna orren frutuak ez dira urriak eta txaloka artzen dabe.

Ikerketeten lenengo ondorioak

1610'ko urtarrillaren lenengoe-tan, bere ikerketen ondorio arrigarri batzuk iragarrita eukazan: Illargia ta Lurra antzekoak ziran; gorputz illun eta argi bako bat zan Illargia, mendi ta aranakaz. Erroma'ko zubia, izarki txiki moltzo bat lez agertzen da. Jupiter'en inguruko izarbelak datoz gero. Galileo'k munduari bialtzen eutson bere «Siderius Nuntius», au da, izar-me-zua.

Orain Galileo'k ere gainean bari rik lur sendoan ipintzen zitun bere oiñak. Duke aundiak laguntzen dautso, jesuitak bere alde daukaz eta Erroma'ko jakitunak. Gogogogoz lan dagi eztabaidetan, gogotsuago ekiñik bere zientzi barria zabaltzen, eta latin izkuntza baiño



Galileo'ren astrolabioa.

gurago dau errikoa. «Erri izkuntzan idazten dot —diño— guztiak irakurri nagien gura dot eta».

Ekatxa bere gain

Mendira doa arthritis-miñak joa. Atsedena nai dau. Miñak ez dautso kentzen umore ona. «Egoki izango jat —idazten dau— menditar egitea, edo bear bada illobi-zale. Baiña laster jatxi bearko dau menditik. Ekatxa sortu zan bere gain. Galileo'ren aurkiketak istillu ta eztabaida latzak sortu ebezan. Iraultza geunkan etxean: guzurtutzat joten eban Aristotele, eta orduko kultura guztia be ankaz gora jaurtzen

...ala geratzen zan. Gaiñera, agintarria eta erlejiñoa albora itxitako zientzi berezi bat nai izateak nai-az ekarri bear zituan naste ta ez-tahaida latzak. Eleiza, bere alde-rik, leiatsu ebillen orduantxe bere gaitzidea ta izen ona indar-azo ta gogon naiean.

Naasia benetan bere inguruan sartu eban giroa; Galileo etzan ordo konturatu. Katolikua zan eta ordo eban zientzi-aurrerapenak fetsen eban zientzi-aurrerapenak fetse sendotu besterik ez ebala egin-eko. Eguzki-inguruko irakatsia Li-buru Santuak iñoenen kontra egoa-ria esaten eutsoenei, erantzuten zutsen: «Idazti Deunak ezin lei errakuntzarik izan, baiña bai erra-ru legikee aretzaz adierazpena da-rienak». Errazoizko erantzuna, zi-ñez, baiña barria. Ez da egokia. Gaiñ joakoz bere arerioak —orain

dominikuak— esanik: «Galileo Li-buru Santuak be bere erara adie-razten ausartzen jaku? Ereje lez sa-latzea nai ete dau?»

Erroma'ko Eleiz-epaitegiaren au- rrean

Galileo'k somatu dau arriskua. Eta Erroma'ra doa eta alegiñak erreten ditu bere zintzotasunaz ja-betu daitezcan ango jakitunak eta kardenalak. Dana alperrik. 1616'ga-rreren urtea da, Shakespeare ta Zer-bantes il ziran urtea. Pizkundeak egin eban berea. Otsaillaren 18'an Eleiz Auzitegiak ereje lez gaiztes-ten dau «Eguzkia munduaren erdia dela ta, beraz, tokiko mugimentu-rik ez dauala diñoan dotriña». Suntsitua izan da Galileo, baiña itxuraz osorik urtetea lortu dau. Epaian ez da agertzen bere izenik.



Galileo, eleiz-epaitegiaren aurrean.

Bere alde dauko Toskana'ko Duke Aundia, eta Auzitegiko batzuk, Belarmino tarteko zela.

Onek diñotsa izteko bizi-bizi darraren pentsamentu ori. Galileo konturatzen da galzori aunditik urrundu dala. Baiña ostruka txoriarena egiten dau: epaia iruntsi, berari dagokiona ezpalitzan. Nik ez neukan auzi orren interesik, eta ez nintzan murgilduko neure etsaiak ortara eroan ez ba nindue. Izen ona opa dau, alan be, eta agiri bat eskatzen dautso Belarmino'ri, aurrean erabillenen aurkako agiri bat noski. Agiri orrek diñoanez, Galileo'ri iragarri jako «Kopernikoren teoria ezin daitekela onartu. Pisatarra pozik doa Erroma'tik agiri danez, baiña barrutik porrot egin dabela-ta dago. Goibel eta betillun.

Galduta dago. 68 urte bizkar-gaiñ. Zer egingo? Erbestera joan? Ez doa, orraitino. Aulduta aurkitzen da. Bear bada Belarmino'k eskuratu dautson agiria naikoa daua-la, uste dau, bere fede ona erakusteko. Zartako aundiagoa oraindik: 1616'an dokumentu bat agertzen da, oso astuna; onen arauera, Galileo'k ezingo dau Koperniko'ren erpenik ez zabaldu, ez aurrera eroan. Agiri au, jakitunenak uste ebenez, etzan egiazkoa, guzur-saltzailleak egiña baiño. Maltzurra zanagaitik, eta arriskuetatik iges egiten ekiana, 1633'an gaiztetsia izan zan; Koperniko'ren irakatsiari eutsi ez eu-

tsi luzaro jardunarren, ez eben ontzat artzen bere jokabidea.

Epailleak salatua errubako egin nairik, Galileo nekatua dagoala diño, zaarra, auldua ta izutua; autortu daijala bere errua. Ortara dago Galileo: arrokeriz oker jokatutai eban. Onek ostera gaiztoagotutai egin eban gauzea, bere asmoa Eleizaren kontrakotzat artzen da. «Susmadun, alan-olengo ta erejigarri oso egin zara», diñotse. Oiñazezemaiz barriz daroie itaunketara. Galileo'k ez dau bere burua zuritzen. «Emen nago —diño— zeuen eskuetan; egin nigaz nai dozuena».

Bagillaren 22'eko goizean Inkisiziñoeko mando baten bizkarrean, Eleiz-Epaitegikoak batzaratuta egozan Santa Mariako domekar konbentuko salara daroe. Eta an, gizaseme nekatua, atxakiz betea, irurogetamar urtekoa, erdi-itsu, buru-soil eta bizar matarraska, belauniko, ziñez ukatzen dau esana. Urbano pozik dago; lurrean narras dakus bere etsaia.

Galileo bederatzi urtez biziko da oraindik ixillik baiña bere liburu «Zientzi Berriei buruzko Alkarizketak» idatziz. 1642'ko urtarrillaren 8'an, goizeko lauretan ilten da Galileo, baketsu ta gozo.

EMILIO SANNA'k, «Historia y Vida» aldizkarian, 1968'an, idatzitako «Vida y pasión de Galileo»tik moldatua eta euskeratua.